

2022ko Coop57
Jarduera-Txostena

Editoriala	1
Gure eraginak	2
Zifra nagusiak	2
Maileguak motaren arabera	3
Emandako maileguen bilakaera	3
Mailegu berrien banaketa jarduera-sektoreen arabera	4
Gure Oinarri Soziala	7
Zifra nagusiak	7
Zerbitzu-bazkideak, motaren arabera	8
Oinarri sozialaren bilakaera	8
Gardentasuna	9
Galdu-irabazien kontua	9
Egoera-balantzea	10
Parte-hartzea	11

EDITORIALA

COOP57 INDARTZEA, ERANTZUTEN JARRAITZEKO

Coop57 finantza-tresna bat da, eta xede du finantza-jardueraren bidez bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jartzen duten praktika ekonomiko eta sozial eraldatzaileak eraikitzen laguntzea.

Coop57ren helburua ez da haztea. Hazkundera, edonola ere, gizartea eta ekonomia eraldatzeko bitarteko bat da. Ia 28 urteko ibilbidean, bere hazkundera ekonomia sozial eraldatzailearen erritmora eta beharretara egokitu du Coop57k. Eta gizarte-mugimenduen eta herritar konprometituen bultzadatik abiatuta egin du.

2003ko Irakeko gerrak jende asko «banku armatu»ari alternatibak bilatzera eramanezuen, haien dirua gerra finantzatzeko erabili ez zedin. Horrek esan nahi zuen pertsona gehiago hurbildu zirela finantza etikoetara, eta, horri esker, baliabide gehiago lortu ziren proiektu ekonomiko eraldatzaileak finantzatzeko.

2008an hasitako finantza-krisiak eta haren ondorengo kudeaketak botere politiko eta ekonomikoek piztutako sumindurak, bankuekiko eta haien praktikekiko mesfidantza areagotu zuten, alternatiben bilaketa areagotuz. Finantza etikorako aurrezki-fluxua esponentzialki hazi zen, ekonomia sozial eraldatzailearen hazkundera baino askoz ere azkarrago. Beraz, xedearan arabera erabakia hartu zuen Coop57k, baina ohiko finantza-praktiketatik urrun: hazkundera gizarte-ekonomiako entitate eraldatzaileen hazkundera mugatzea, eta horrek esan nahi zuen, urte askotan, bazkideen ekarpenen urteko gehienezko bolumena mugatu zuela. Aldi berean, ahalegina egin zen ekimen ekonomiko eraldatzaile berriak sortzen eta garatzen eragile aktiboa izateko.

Epe luzerako apustu horrek eman du fruitua eta egoera berri baten aurrean dago egun: azken 5 urteetan maileguaren saldoa ia % 94 handitu da;

aldiz, ekarpenak % 50 hazi dira "soilik". Urte haueetan, Coop57k ekonomia sozial eraldatzaileko entitateen finantza-beharrei erantzun die, eta horri esker proiektu eraldatzaile edo kooperatiba berriak azaleratu eta ekonomia sozial eraldatzaileko entitateek testuinguru kaltegarriak gainditu ahal izan dituzte, hala nola Covid-19aren pandemia, inflazio orokortua, etab.

Tresna baliagarria izaten jarraitzeko, Coop57k oinarri soziala handitu behar du, bazkide gehiagok jarri behar dituzte aurrezkiak, eta baliabide gehiago behar ditu proiektu ekonomiko eraldatzaileei kreditua emateko. Ekonomia sozial eraldatzaileak dinamismo handia du egun eta badakigu, datozen urteetan, proiektu berriak –eta beharrezkoak– finantzatzeko aukera izango dugula: etxebizitzaproiektuak, trantsizio energetikoa, landa-garapena, gizarte- eta lan-txertatzea, beste askoren artean. Haietako askok Coop57n baino ez dute aurkituko laguntza hori; edo besterik gabe erantzun hori, balioen arabera, finantza etikoen barruan ematea nahi dute. Baina jende gehiagok aurrezkiak jartzen ez baditu, hori ez da posible izango.

Gaur egun, lehen bezala, ekonomia sozial eraldatzailearen erritmora eta beharrezkoetara egokituta hazten jarraitu nahi dugu. Eta horrek oraintxe bertan esan nahi du pertsona eta entitate gehiagok behar dituztela jarri aurrezkiak Coop57n.

Gure esku baino ez dago.

GURE ERAGINA

ZIFRA NAGUSIAK

1995az geroztik, Coop57k printzipio etiko eta solidarioetan oinarrituta egin du bere finantza-jarduera. Urte hauetan guztietan, milaka mailegu eman dira Coop57n milaka lagunek jarritako aurrezkiei esker. Jarraian dator xehatuta kooperatibaren egungo egoera.

2022ko abenduaren 31ko egoera

57

Miloi euro aurrezkitan

37,4

Miloi euro mailegutuan

5241

Bazkide kolaboratzaile

1107


Zerbitzu bazkide

2022an zehar...


24,5 Miloi euro mailegutuan

Finantziatutako
334 Proiektu berri


448 Bazkide berri




Inbertsio-maileguak




Etxebizitzak eta entitateen lokalak eskuratzeko maileguak




Kreditu-polizak eta altxortegi-maileguak



Diru-laguntzak, fakturak eta hitzarmenak aurreratzea



Kapitalizazio eta iraunkortasun maileguak




24.538.130 €

EMANDAKO MAILEGUEN BILAKAERA

2022an zehar, 24 milioi euro baino gehiago eman dira mailegu berritan. Zenbaki hori inoizko altuena da, eta erakusten du Coop57 ekonomia sozial eraldatzailearen zerbitzurako tresna baliagarria dela.

3 urtean soilik, jarduera ekonomikoa izugarri zaildu duen pandemia bizi izan arren, 65 milioi euro baino gehiago eman dira mailegu berritan.

Milioiak maileguetan 



ETXEBIZITZA, ERAIKUNTZA, ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

Eragin handia duen sektorea, etxebizitza duin eta bidezkoa eskuratzeko suposatzen duen arazo sozial handia dela eta. Coop57n urteak daramatzagu lanean etxebizitzara sarbidea izateko beste modu bat posible dela frogatzen.

2022an hainbat etxebizitza-kooperatiba finantzatu dira eta, aldi berean, guztientzako ingurune bizigarri eta inklusiboak sortzea bermatzen duten hirigintza eta arkitektura proiektuak finantzatu dira.

1,7
Milioi euro

13
Mailegu



Copsant
Mailegua | 263.025 €
Catalunya

Pallars Sobiran kokatutako erabilera-lagapeneko etxebizitza-kooperatiba. Eraikitako baserria eta 23 hektareako lursaila da, etxebizitza-proiektua eta lur-bankua sustatzeko, herritarrek abeltzaintza birsortzaileko jarduerak, ekoizpen agroekologikoa edo erlezaintza ekologikoa garatu ahal izateko, besteak beste.



Marinaleda
Kreditu-Poliza | 400.000 €
Andalucía

Andaluziako jernalarien borroketatik jaiotako kooperatiba da. Helburua ez da norberaren irabaziak sustatzea, enplegua sortzea baizik. Horretarako, baratzeko produktu osasungarri eta kalitatezkoak saltzen dituzte. Kooperatiba da Marinaledako herriko jarduera-ardatz nagusia; lana ematen die langabezia-maila handia duen Sierra Sur eremuko pertsonei.

1,5
Milioi euro

24
Mailegu

ELIKADURA, NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA BIDEZKO MERKATARITZA

Lehen sektoreak Coop57ren arreta onena merezi du, arlo honek pertsonen oinarri-zko beharrak asetzeko duen garrantzia kontuan hartuta. Lehen sektore indartsu eta bizirik gabe ezinezkoa da gizarte osasuntsu eta jasangarriak garatzea.

Aurten hainbat ekoizle agroekologikok, elikagaiak prozesatzeko, banatzeko eta merkaturatzeko proiektuak eta bidezko merkataritzako proiektuak jaso dute finantziarioa.

KULTURA ETA ARTEAK

Kultura da errealitatea eraldatzeko, kontzientziak astintzeko, bide berriak irekitzeko, komunitate-loturak sortzeko, ikasteko eta, noski, ondo pasatzeko tresna ahaltzuenetako bat.

2022an, askotariko 50 kultur proiektu finantzatu dira: kultura herrikoiko elkarteak, sorkuntza artistiko eta kulturalerako espazioak, liburu-denda eta argitaletxe kooperatiboak, kultur sustatzaileak edo kultur proiektu aldarrikatzaileak.

2,3
Milioi euro

48
Mailegu



Quesoni & L'Afluent
Inbertsio- eta altxortegi-maileguak | 284.058 €
Catalunya

Bi kooperatibok kultur ekoizpena eta kudeaketa lantzen dute eta 2022 honetan elkartu egin dira Sala Paral·lel 62 (lehen Sala Barts) aretoaren kudeaketa bere gain hartzeko. Bartzelonako kulturune nagusietako bat izaki, urtean 100.000 pertsona baino gehiago bertaratzen dira. Arte eszenikoak, herritarren parte-hartzea eta ekonomia sozial eraldatzailea uztartzen ditu.

HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

integratzaile eta unibertsalaren aldeko apustua egitea. Ikuspegi hori gehitzea ezinbestekoa da gizarte kohesionatuak, prestatuak eta berdinzaleagoak lortzeko.

Ikuspegi eraldatzailea duten ikastetxe kooperatiboak, gure gizarteko gazteenei baloreak transmititzen dizkieten hezkuntza ez-formaleko entitateek edo esparru ezberdinetako prestakuntza-proiektuek finantzaketa jaso dute.

1,8

Miloi euro

18

Mailegu



Gusantina
Kreditu-Poliza | 90.000 €
Aragón

Hogeita hamar urte daramatza Zaragozako Madalena auzoan lan egiten, hainbat errealitate elkartu eta korapilatzen diren esparruan. Entitateak auzoko zaintza-sarea ehuntzen du, kontuan hartuta testuinguru konplexu batean beren



Finca el Cabillón
Kreditu-Poliza | 15.000 €
Asturies

Edes Fundazioak 2006an hasitako proiektu ekonomiko eta soziala da, eta Asturiasko mendebaldean dago. Lorezaintzaren eta ekoizpen agroekologikoaren bitartez, adimen urritasuna duten pertsonen lan eta gizarteratzea hobetzea dute helburu eta, horrela, Finca El Cabillónen lan-merkatutako ate irekia izan dezakete.

9,9

Miloi euro

97

Mailegu

PERTSONA ETA KOLEKTIBO ESPEZIFIKOEI ARRETA

Coop57ren barruan ordezkaritza handiena duen jarduteko eremua da, pertsona eta/edo taldeekiko gizarte-ekintza guztia hartzen baitu bere baitan, behar zehatz bat izan ala ez. Batera egindako jarduerak balio erantsi izugarria ematen dio gizarte justuagoak eta inklusiboagoak eraikitzeko bideari.

Aurten bakarrik, alor ugaritako ia 100 ekimen finantzatu dira, ia 10 milioi euro guztira. Hau da finantzaketa bolumen handiena duen jarduera-sektorea.

OSTALARITZA, KIROLAK, AISIALDIA ETA TURISMOA

Eremu honek barne hartzen ditu lurraldeari lotutako eta jasangarritasun- eta kalitate-irizpideen araberako kultura gastronomikoa proposatzen duen ostalaritza kooperatiboa eta, aldi berean, kirola, aisialdia eta turismo arduratsua.

2022an, ostalaritza kooperatiboko proiektuek eta esku-hartze sozial, inklusibo eta komunitarioko ikuspegia duten kirol proiektu ezberdinek jaso dituzte maileguak.

0,9

Miloi euro

7

Mailegu



Gimnàs Social Sant Pau
Diru-laguntzak aurreratzea | 160.000 €
Catalunya

Gizarte-proiektu bihurtutako da, Bartzelonako erdigunean. 900 pertsona inguruk doako sarbidea dute Bartzelonako 40 gizarte entitatearen lanaren bidez, eta arreta berezia eskaintzen zaie indarkeria jasan duten emakumeei, tutoretzapean dauden gazteei, etxerik gabekoei eta errefuxiatuei.

GIZARTE ETA ORDEZKARITZA ESPAZIOAK

Ekonomia sozial eraldatzaileak egitura komunitarioak sortzen ditu, elkartzeko, interkooperatzeko, elkarrengandik ikasteko, artikulatzen gaituzten aliantzak eta sareak biltzeko eta jarduteko ahalmena biderkatzeko. Balio horiek guztiak daude ekonomia eraldatzailearen muinean.

Arlo honetako hogeit bat ekimen finantzatu dira 2022an zehar, ESEko sareak, kooperatiba federazioak, auzo elkarteak edo zentro sozialak eta ateneoak, besteak beste.

1,4

Miloi euro

21

Mailegu



Espazocoop
Kreditu-Poliza | 70.000 €
Galiza

Kooperatiba-printzipioetan eta horren balioetan inspiratutako Galiziako entitatea da. Helburu du Galiziako kooperatiben arteko elkarlana sustatzea, ordezkatzeko, interkooperazioa bultzatzea eta interesak babestu eta kooperatibismoa sustatzea, garapen sozioekonomikorako tresna gisa, ekonomia sozial eraldatzailearen esparruan.



Goiener
Kreditu-Poliza | 500.000 €
Euskal Herria

Energia berriztagarriak sortzeko eta kontsumitzeko proiektu kooperatiboa, burujabetza energetikoa berreskuratzea helburu. Goienerrek herritarrek energiaren gaineko kontrola berreskuratzen eta horren garrantziaz jabetzea nahi du, energia-kontsumo arduratsua eta jasangarria sustatuz.

2,9

Miloi euro

29

Mailegu

INGURUMENA, JASANGARRITASUNA ETA TRANSIZIO ENERGETIKOA

Nabaria da planetaren osasuna muturreko egoeran dagoela. Klima-aldaketa areagotzen ari da etengabe eta premiazkoa da gure ingurune naturala eta energiaren inguruko kultura berri bat zaintzeko paradigma-aldaketa bat egiteko beharra.

Urtean zehar finantzatu dira ingeniaritza-enpresak, instalatzaileak, ekoizleak eta energia-komunitateak, lurraldea eta bere ekosistemen zaintza eta kontserbaziorako entitateak eta ingurumen proiektu soziohezitzaileak eta komunitarioak.

BESTE BATZUK

Coop57k emandako maileguen artean 2022an zehar pisu txikiagoa izan duten beste sektore batzuk daude. Maileguak eman zaizkie, bi milioi euro guztira: enpresei edo partikularrei zerbitzuak eskaintzen dizkieten proiektuei, industria eta manufaktura proiektuei, komunikazio proiektuei eta teknologia berriei, logistika eta mugikortasun jasangarriko proiektuei, baita aholkularitza-proiektuei ere.

2

Miloi euro

67

Mailegu



Heliconia
Kapitalizazio-mailegua | 110.000 €
Madrid


Gizarte- eta ingurumen-aholkularitza hau 2004an eratu zuen diziplina anitzeko lantalde batek Madrilen. Demokratikoki kudeatzen da eta ekonomia sozial eraldatzailearen balioak ditu oinarri. Nekazaritza-ingurumeneko eta soziohezkuntzako aholkularitza eskaintzen du, baita hiri-berdetasunaren plangintza eta kudeaketa integrala ere, besteak beste.

GURE OINARRI SOZIALA

ZIFRA NAGUSIAK

Bazkideek eraikitzen dute Coop57; haiek dira kooperatibaren jabe eta berau kudeatzeko antolatzen dira. Bazkide izateak esan nahi du beste eredu ekonomiko bat bultzatzeko modu kolektiboan lan egiten duten pertsona eta entitateen sare bateko kide izatea. Entitate horiek eraldaketa sozialeko proiektu sozioekonomikoak jartzen dituzte martxan, beren aurrezkiak Coop57n jartzen dituzten milaka pertsonen konpromisoari esker.

2022ko abenduaren 31ko egoera



2022an zehar...


2448 Abal-emaileak*

79 Zerbitzu-bazkide berriak

369 Bazkide kolaboratzaile berriak

* Coop57k bere sistema du maileguak bermatzeko orduan: **Abal Pertsonal Mankomunatuak** izenez ezagutzen dira. Sistema hori ez da ondare-bermeetan oinarritzen, finantzatu-tako proiektuen oinarri sozialaren bidez artikulatzen dira. Abal-emaileek konpromisoa hartzen dute, eta horrekin erantzuten dute emandako maileguaren zati bat. Hala, ia 2.500 lagunek 300 finantzaketa-operazio baino gehiago ahalbidetu dituzte aurten.

2020an, 25. urteurrenarekin batera eta nolabaiteko poesia historikoarekin bat, 1.000 zerbitzu-bazkideko zifrara heldu zen Coop57. Oinarri sozial honen ekintza bateratuak ahalmen eraldatzaile izugarria du, jarduera sozioekonomikoko hainbat sektoretan eragina du eta ekonomia sozial eraldatzailearen ohiko forma juridikoetan jarduten du.




OINARRI SOZIALAREN BILAKAERA

Oinarri sozialaren hazkunde-tasa, aurreko aldiekin alderatuta, zertxobait txikiagoa izan da termino garbietan, neurri handi batean, bajaran emandakoan kopuruaren ondorioz.

Hain zuzen ere, pandemiaren testuinguruak eta bizi-kostuaren garestitzeak proiektuen bideragarritasuna eta pertsonen aurrezteko gaitasuna oztopatu dute. Hala ere, urtero ehunka bazkide berri sartzen dira Coop57n.

Zerbitzu-bazkideak
Bazkide kolaboratzaileak



GARDENTASUNA

GALDU-IRABAZIEN KONTUA

2022ko galdu-irabazien kontuak oso kopuru positiboak adierazten ditu, espero baino superabit apur bat gehiagorekin itxi baita urtea. Zenbait partidaren testuinguru makroekonomikoa aldekoa

ez bazen ere, kreditu-jarduera handiak maila horretara iristen lagundu du. Gastuen zatian, proiektuaren kaudimena sendo mantentzeko beharrezko baliabideak erabili dira

	Cierre 2022	Presupuesto 2022	Variación %	Real 2021	Variación %
Ingresos	1.218.404	1.132.112	7,62	1.061.638	14,8
Ingresos préstamos	1.032.650,83	950.000,00	8,7	872.010,83	18,4
Intereses depósitos, c/c	4.832,35	2.750,00	75,7	5.128,00	-5,8
Otros ingresos de explotación	43.608,73	46.448,12	-6,1	43.610,24	0,0
Ingresos Marca Sàpiens	121.973,07	122.678,88	-0,6	122.678,88	-0,6
Ingresos extraordinarios y de otros ejercicios	4.928,76	235,00	-	1.333,33	269,7
Recuperación de préstamos fallidos	10.410,56	10.000,00	4,1	16.876,83	-38,3
Gastos	1.093.935	1.027.796	6,4	957.937	14,2
Personal	462.463,30	440.141,00	5,1	416.645,17	11,0
Servicios Externos	133.400,25	152.209,78	-12,4	108.613,67	22,8
Dotaciones para amortizaciones	15.007,64	16.604,87	-9,6	14.340,30	4,7
Amortización Marca Sàpiens	105.798,25	105.798,25	0,0	105.798,25	0,0
Provisiones	300.160,17	215.000,00	39,6	234.032,80	28,3
Remuneración aportaciones voluntarias	51.180,60	50.000,00	2,4	46.008,30	11,2
Gastos extraordinarios y de otros ejercicios	14.192,48	4.075,00	248,3	21.788,36	-34,9
Pago por depósitos bancarios	9.681,93	42.000,00	-76,9	7.759,76	24,8
Coste SGR y fondo de avales	2.050,00	1.967,00	4,2	2.950,00	-30,5
Resultados antes de variables	124.470	104.316	19,3	103.702	0,6
Paga variable en función de resultados	18.670,45	15.647,42	19,3	15.555,23	20,0
Donación Fundación Coop57	12.446,97	10.431,61	19,3	10.370,15	20,0
Proyectos secciones territoriales	12.446,97	10.431,61	19,3	10.370,15	20,0
Resultados antes de impuestos	80.905	67.805	19,3	67.406	0,6

EGOERA-BALANTZEA

Balantzeari dagokionez, azken urteotako ildoari eutsi zaio, % 10 inguruko igoerarekin, batez ere bazkide kolaboratzaileek egindako aurrezki-ekarpen berriek eta kreditu berriak emateko dinamismo handiek bultzatuta.

	2022	2021	2020
Activo	57.789.334	52.722.258	47.694.368
Inmovilizado intangible	3.203	533.117	640.279
Inmovilizado material	973.371	979.615	981.429
Inversiones financieras de patrimonio	556.552	555.052	577.052
Créditos concedidos a largo (saldo)	20.201.281	14.843.757	14.239.414
Créditos concedidos a corto (saldo)	18.271.209	16.156.205	10.666.395
Provisión por insolvencia de créditos	-729.512	-573.506	-622.665
Deudores y otras cuentas a cobrar	427.450	223.337	360.250
Tesorería	18.085.211	20.004.299	20.851.296
Periodificaciones	571	382	918
Pasivo	57.789.334	52.722.258	47.694.368
Capital obligatorio socias	1.184.039	1.125.440	1.084.872
Capital voluntario. Fondo garantías préstamos	455.075	435.184	427.136
Capital obligatorio socias colaboradoras	1.568.108	1.484.588	1.400.214
Reservas	556.518	500.634	455.812
Resultados antes de impuestos	80.905	67.406	64.184
Total fondos propios	3.844.645	3.613.252	3.432.218
Fondo educación y promoción cooperativo	28.401	30.713	22.027
Pasivo no corriente (largo plazo)	53.279.051	48.577.884	43.752.955
Pasivo corriente (corto plazo)	630.517	493.689	480.448
Aportaciones capital social Fiare-B.P.E.	6.720	6.720	6.720

PARTE-HARTZEA

COOP57REN ENGRANAJEKO EZINBESTEKO PIEZAK

Coop57k ezin luke funtzionatu oinarri sozial aktibo eta konprometiturik gabe. Coop57ko organoak, Coop57ko bazkide diren pertsonak eta entitateek soilik osatuta, ezinbestekoak dira gizarte-, ekonomia- eta gardentasun-zorroztasun estandar gorenei eusten dieten prozesuak bermatzeko.

Lurralde-sail bakoitzean, gutxienez, prozesu politiko, sozial eta ekonomikoetan esku hartzen duten Lurralde Sail Kontseilu bat, Gizarte Batzorde bat eta Batzorde Tekniko bat daude. Horrez gain, Somos Todas Batzorde Feminista dago; sail guztietako pertsonak parte hartzen dute.



Gizarte batzordeak Coop57ko bazkide izan nahi duten entitate berriak ebaluatzen ditu, eta batzorde teknikoak eskatutako mailegu berrien bideragarritasuna aztertzen du. Saileko Kontseilua lurralde-sail bakoitzaren funtsezko gaiak eztabaidatzen dituen organo politikoa da eta bazkideak berriak eta mailegu berriak ematea onesten du, batzorde sozial eta teknikoan lana oinarri hartuta. Somos Todas Batzorde Feministak ezagutza eta tresnak



Espazio hauetan guztietan, 180 lagunek baino gehiagok parte hartzen dute aldiari-aldian eta urtean zehar, bakarka edo euren entitatea ordezkatzeko; 15 lagunek parte hartzen dute batzorde feministan, 70 lagunek baino gehiagok parte hartzen dute saileko kontseilu ezberdinetan, 50 inguruk gizarte batzordean eta beste askok batzorde teknikoan.

Partaidetza-gune horri –batzarretan eta eztabaida-guneetan parte hartzen duten pertsona guztiak gehitu behar zaizkio– kooperatibaren altzorrak handiena dira, haiek gabe ezin baita Coop57 behar bezala ulertu.

Parte-hartzean oinarritzen den oinarri demokratikoko proiektua da Coop57, eta egunero bultzatu behar da parte hartze hori. Coop57ko bazkide guztiak burujabetza eta demokrazia ekonomikoko proiektu baten parte izan zaitezketek.



 coop57.coop
 coop57@coop57.coop

 [@coop_57](https://twitter.com/coop_57)
 [@lacoop57](https://www.instagram.com/lacoop57)
 [@lacoop57](https://www.facebook.com/lacoop57)